

Nola aurre egin ludopatiari familian

Zaila da jokoarekiko mendetasuna edo ludopatia detektatzea familian, eta ia beti aurkitzen da egoera beraren ondorioz: ARAZO EKONOMIKOAK.

-“Nik ez nekien ezer. Bankutik deitu ninduten, eta senarrarekin hitz egin nuen. Gure aurrezki guztiak txanpon makinetan gastatu zituela esan zidan. Ezin nuen sinetsi. Beste emakume batekin engainatu izan banindu bezala sentitzen naiz“. (Miren, senarra ludopata du)

-“Kezkatuta izan nintzen luzaroan, emaztea hotz nabaritzen nuelako. Ez zuen bere burua apaintzen, eta ez zen lehen bezala arduratzen etxeaz eta seme alabez. Egun batean, kontatu zidan bingoan jokatzen zuela, eta bankuari hainbeste kreditu eskatu zizkiola, ezen lan asko eginda eta izerdi asko botata lortu genuen pisua bahituta baitzegoen”.(Jon, emaztea ludopata du)

Pdf deskarga